



DEMOKRAZIAREN, ASKATASUNAREN ETA BIZIKIDETZAREN ALDE,
"ATUREM EL COP"

2017KO MARTXOAREN 19AN. 12:00etan
URQUINAONA PLAZAN

Sezesio prozesua kalte larria egiten ari zaie bizikidetzari, demokraziari eta gure askatasunei. Independentistek gogoan hartu dute Kataluniako Parlamentua, Generalitateko Gobernuak, diputazioak eta beren esku dauzkaten beste instituzio guztiak, legaltasunari alde egirik, beren helburu ilegal eta bidegabean tresna bihurtzea.

Legeei ez ezik, epaileei ere ukatzen diete obediencia, muga eta kontrol oroz gorago daudelako ustean. Harrokeriaz eta arinkeriez, ozen asko adierazten dute ez dutela legea beteko, ez epaitegiei men egingo; beren borondatea bai Kataluniari bai katalanei inposatuko dietela eta, Konstituzioa indargabeturik, alde bakarretik hautsiko dutela zuzenbide estatua.

Agerian jarri dituzte beren asmoak. Arestian jakin dugu estatua engainatu nahi dutela eta gure datu pertsonalez jabetu nahi dutela zergak ordainarazi ahal izateko, eta, gainera, haien aldeko eta kontrako funtzionarioen zerrendak osatzen ari direla behar den garaian behar direnak purgatzeko, erabakitzeko nortzuk geldituko diren eta nortzuk lekutuko beren estatu "berritik".

Aski da esateko ordua da. Kataluniako herritarrak eraman handikoak izan gara haiekin, utzi diegu nazionalistek gure instituzioez jauntzen, denon ikur diren banderak (Espainiakoa, senyera eta Europakoa) kendu eta haien ordezteladak jartzen; ikusi dugu nola desobeditzen zituzten epaitegien manuak eta nola esetsi egiten zieten epaiak betetzea eskatzen zutenei. Ezintasun handiz ikusi dugu nola denonak ziren baliabideak bidegabeki erabiltzen zituzten bereizkeria sustatzeko, bizikidetzak apurtzeko, katalanak elkarren kontra eta gainerako espainolen kontra jarrarazteko.

Bukaera jartzeko ordua da. Kataluniarentzat zuzenbide estatua berreskuratu behar dugu, administrazioek legeak errespetatu behar dituzte, denonak diren sinboloak onartu, sezesioa prestatzeko ekintzei utzi eta katalan guztien eskubideak babestuta daudela bermatu.

Ezin jasango dugu zerrendak egin daitezen, gure fitxak egin daitezen, erregimen autoritarioen alderdi beltzetara bihurtu gaitzaten.

Demokrazia berreskuratzeko lantegi hau denon ardura politikari nazionalistek legearen bidera bihurtu daitezela. da. Exijitu behar diegu kargu publikodunei eta instituzioei ekintzara pasa daitezela beraiek aitortu dituzten ilegalitateak galarazteko. Epaitegiatarako ere jo behar dugu, hala behar izaten bada.



Baina kalera ere atera behar dugu. Jendaurrean erakutsi behar dugu gure gaitzespena iragartzen hasi zaizkigun demokraziaren kontrako kolpe honen aurrean, eta bai, aldi berean, agerian jarri ere nola guk, gaur hemen gure eskubideen errespetua eskatzen dugunok, beti eskua luzaturik edukiko dugun katalan guztien arteko bizikidetza berreskuratzeko.

Gizarte demokratiko eta libre izatea lortu dugu eta orain berriro borroka egiteko garaia da askatasun horiek ez galtzeko. Botere publikoa bizikidetza arauak urratzeko erabili nahi dutenak, denok geure eskubideen airtormena izateko dugun eskubidea ukatzen dutenak, herritarrak kontrolatzeko legearen muga gainditzen dutenak, elkar-jotzea sustatu eta bereizkuntza bilatzen dutenak, horiek dira gaur gure bizikidetzarako mehatxua. Berreskura ditzagun geure instituzioak, berreskura dezagun geure demokrazia, berreskura dezagun gure askatasuna eta hobetu dezagun geure bizikidetza.

Hartarako, zatoz gurekin heldu den martxoaren 19an. Froga dezagun oraindik gizarte libre garelara.

SOCIETAT CIVIL CATALANA

Còrsega, 270

08008 Barcelona

T+34 936 243 237

internacional@societatcivilcatalana.cat

www.societatcivilcatalana.cat

